

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7/2023 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa. Aldatzea abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinaren, jarduera ekonomikoen eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T eredia ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko**

Abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauak, zeinaren bidez ezartzen baitira ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko beste neurri batzuk, aldatu egiten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, etekin osoen beste salbuespen ehuneko bat ezartzeko lekualdatutako langileentzako araubide bereziari heldzen dioten zergadunentzat, 56.bis artikuluan 2. apartatuaren a) letran jasoa.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinaren, jarduera ekonomikoen eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T eredia ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko.

Honako aldaketa hau egiten zaio abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduari:

Bat. 35 azpigakoaren idazketa aldatzen da, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotako 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoen 2 motako erregistroaren (hartzaileen erregistroa) 79tik 80ra bitarteko posizioak betetzen dituen "AZPIGAKOA" eremuko "L" gakoari dagozkion hartukizunetan erabili beharreko azpigakoen barruan. Hona hemen edukia:

"lanaren etekin salbuetsiak, langile lekualdatuen araubide bereziarenpean (PFEZaren Foru Arauaren 56.bis artikuluan arautua) dauden zergadunek hartuak. Azpigako honetan jarri behar da lan harremanaren ondoriozko etekin osoei ehuneko 30 aplikatuta ateratzen den zenbatekoa. Etekin osoen barruan sartu behar dira jasotako hartukizunak eta enplegu-emaileak ordaindutako gastuak, joan-etorrien ondorioz sortuak badira".

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2022. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 13a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

*Ogasun zuzendaria*  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA